

**951/2020 EBAZPENA, IRAILAREN 11KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA. HORREN BIDEZ ARGITARATZEN DIRA FISIOTERAPEUTA KATEGORIAN HAUTATUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA TXANDA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA, DESTINOA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN IZANIK.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 5 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 28ko EHAA, 28. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 129/2018 Ebazpenaren bitartez, Diplomatu Sanitarioen lanbide-taldeko Fisioterapeuta kategorian estatutupeko langilea izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko otsailaren 15eko EHAA, 33. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 20ko 814/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Diplomatu Sanitarioen lanbide-taldeko Fisioterapeuta kategorian estatutupeko langilea izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute destinoa.

Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 16. atalean aurreikusitakoaren arabera, destinoak izangaien artean esleituko dira, egindako eskaeraren eta lortutako puntuazioaren arabera.

Era berean, hautaprobetan parte hartetik eratorritako eskubideak galduko dituzte destinoa garaiz eta behar bezala eskatzen ez duten izangaiak, aurreko oinarrian ezarritakoaren arabera, eta benetan eskatutako destinoen artean destinorik lortzen ez dutenek, bai eta oposizio-lehiaketan lortutako puntuazioa dela-eta eskainitako destinoen artean destinorik ez dutenek ere.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

#### **EBAZTEN DUT**

**Lehena.**– Osakidetzako webgunean argitaratzeko agintzea hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Diplomatu Sanitarioen lanbide-taldeko Fisioterapeuta kategorian txanda ireki bidez bete beharrekoak egiaztatu dituztenen artean, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan izanik.

Ebazpen horrek hiru Eranskin izango ditu: I. eranskinean, destino baten esleipena lortu duten pertsonen zerrenda adieraziko da; II. eranskinean, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, zeinetan bereiz adieraziko baitira destinoa hautatzeko aukera dutenak eta ez dutenak, eta III. eranskinean, berriz, baztertutako hautagaiak jasoko dira, baztertzeko arrazoiarekin batera.

**Bigarrena.**– Aurreko paragrafoan aipatutako Ebazpenaren I. eranskinean ageri diren esleipendunak pertsonal estatutario finko izendatuko dira, Osakidetzako zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da).

Ebazpen horretan, lanpostuaz jabetzeari eta lanean hasteari buruzko informazioa jasoko da.

**Hirugarrena.**– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 11n.

Iz.: Juan Luis Diego Casals

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**



**RESOLUCIÓN 951/2020, DE 11 DE SETIEMBRE, DEL DIRECTOR GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA PUBLICACIÓN DE LA RELACIÓN DEFINITIVA DE ASPIRANTES SELECCIONADOS Y LA ADJUDICACIÓN DE DESTINOS POR EL TURNO LIBRE EN LA CATEGORÍA DE FISIOTERAPEUTA CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.**

Mediante Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV nº 28, de 8 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 129/2018, de 7 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fisioterapeuta del grupo profesional de Diplomados Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV nº 33, de 15 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 814/2019, de 20 de noviembre, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordena la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de la relación provisional de los aspirantes por el turno libre que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fisioterapeuta del grupo profesional de Diplomados Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Conforme a lo previsto en el apartado 16 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, los destinos se adjudicarán entre los aspirantes de acuerdo con su solicitud y por el orden de puntuación alcanzada.

Asimismo, perderán los derechos derivados de su participación en las pruebas selectivas los aspirantes que no soliciten destino en tiempo y forma, conforme a lo establecido en la base anterior, y los que no obtengan destino alguno entre los efectivamente solicitados, así como aquellos a los que, por la puntuación obtenida en el concurso-oposición, no corresponda destino alguno de entre los ofertados.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

### **RESUELVO**

**Primero.**— Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza de la relación definitiva de aspirantes seleccionados y la adjudicación de destinos, entre aquellos que hubieran acreditado los requisitos necesarios, por el turno libre en la categoría de Fisioterapeuta del grupo profesional de Diplomados Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Dicha Resolución contendrá tres Anexos: el Anexo I constituirá la relación de adjudicatarios de destino, el Anexo II será la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo, con

indicación separada de los que tienen opción a destino y los que no tienen opción a destino y el Anexo III contendrá la relación de aspirantes excluidos, con indicación del motivo de exclusión.

**Segundo.**— Mediante Resolución del Director General de Osakidetza, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, se efectuará el nombramiento como personal estatutario fijo de los adjudicatarios incluidos en el Anexo I de la Resolución citada en el párrafo anterior.

Dicha resolución contiene en sus resueltos la información relativa a la toma de posesión e incorporación.

**Tercero.**— Al amparo de lo establecido en el apartado 21 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de setiembre de 2020.



Fdo.: Juan Luis Diego Casals

**DIRECTOR GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD**